

PRIMUS

(Otsaila)

Eskenatokian, lemako gurpila, lemazainik gabe. Nonbait kristalezko arrainontzi borobil bat, arrain koloretsu batekin.

Laino egonkor bat dago, ikuskizun osoan zehar mantenduko dena.

Bazter batean, laino artean Anderea erdikusten da.¹

Andereak berba egiten du, musikaren laguntzaz.

Anderea

Juan Sebastian Elkano hilzorian dago bere ontzian, Nao Victoria Berrian. Munduari buelta ematen ari da bigarren aldiz, Enperadorearen aginduari jarraituz, lehenengo bidaian eginiko aurkikuntzak sendotzeko. Pazifikora helduta, ordea, Elcanok norabidea aldatu du, iparreruntz. Auskalo zeren bila.

Kalma zuria dago itxasoan. Ontzia geldirik ozeanoaren handitasunean, galdurik, noraezean. Elkano ere noraezean, sukarrak zorabiatuak. Tripulazioak bereganako konfiantza galdu du. Ez dute sinisten jada gizon horrek behinola, Nao Victoriarekin, munduari buelta eman zionik.

Txo sartzen da.

Txo

Ondo da, klaru egin daigun berbie. Neure amaren deskantsu eternuagatik diñot munduari buelta eman eutsola Elcano Jaunak, ta ni Nao Victorian bizirik bueltau zirian hamazortzi ausart hoietatik bat nazala! (...) Ez dozue sinistuten, ezta?... Enaz harritzen. Garai txarrak direz egiarako. Guzurra nausi da, desinformaziñoa, manipulaziñoa, intoxikaziñoa: harri filosofala; grial

¹ Andrea (Lamia, alegia) eta bere ondoan dagoen musikaria espazio zehaztugabe batean daude. Txo eta Elcano garaiko arrokekin jantzirik agertu daitezke; Andrea eta musikaria berriz, gaur eguneko arropa eta itxurarekin. Atril bat izan dezake edota, nahi izanez gero, ordenagailu batetik kudeatu dezake argiztapena. Testuak ere, ordenagailutik irakirri ditzake, nahi izanez gero.

santua; Pendragonen ezpata; judu
erraria... Guzurra dana. Ganera, orain
badao informaziño faltsua erraz
zabaldu teko modue, inprenta
deabruzkoarekin. Zaila da bereiztia
guzurra ta egia.

Musika entzuten hasten da.

Txo

Urrutira jo barik, itxasoko lamiak.
Guzur galanta, intoxikaziño,
manipulaziño eta desinforma...

Andereak balada bat kantatzen du.

Txo harrituta dago.

1. BALADA: "ANA JUANITA" (Osorik)

Kanta bukatzean.

Txo

Ondo da. Agian itxasoko lamiak
existitzen direz. Baie diño e lamian
kanta entzuten dauenak burue galdu ta
itxasora botatzen dala. Ta hori ezta
egia. Nik entzun da enaz bota. Ikusi
dozue. Egia eta guzurra bereizten jakin
bida!

Elcano agertzen da. Sonambulo bezela mugitzen da, zurbil,
izerditan, betazpiak more, ilea nahasirik... Eromenaren edo
heriotzaren isla da.

Txo

Micer Juan Sebastian, prezisamente...

Elcano

Tssst!!!

Andereak hitz egiten du. Elcanok entzuten du. Txok ez.

Anderearen abotsa itxuraldaturik entzuten da, irrati efektu
batekin. Andereaken abotsa eta astronauten jatorrizko
grabazioa nahasten da.

Anderea

Altitude-velocity light. 3 1/2 down,
220 feet, 13 forward ... forward. Coming
down nicely. 200 feet, 4 1/2 down. 5
1/2 down. 5 1/2 down, 9 forward. That's
good. 120 feet. 100 feet, 3 1/2 down, 9
forward. Five percent. Okay. 75 feet.

There's looking good. Down a half, 6 forward.

Txo

Micer Juan, zer...?

Elcano

Tssst!!

Anderea

Here mission control. 40 seconds of fuel remaining.

Elcano

Ok. Here Aldrin.

Anderea

Lights on ... Down 2 1/2. Forward. Forward. Good. 40 feet, down 2 1/2. Kicking up some dust. 30 feet, 2 1/2 down. Faint shadow. 4 forward. 4 forward. Drifting to the right a little. Okay. Down a half.

Elcano

Here mission control. 30 seconds of fuel remaining.

Anderea

Ok.

Elcano

Iristen ari dituk!

Txo

Nortzu? Nora?

Elcano

Tsssstt!!!!

Anderea

Here Amstrong. Forward drift. Okay. Contact light. OK, engine stop. Houston, Tranquility Base here. The Eagle has landed. Yes. Okay. Contact light. OK, engine stop.

Elcano

Lortu diate!!

Txo

Zer...?

Elcano

Tssst!!

Anderea

Houston, Tranquility Base here. The Eagle is gonna land.

Elcano

Is gonna land! Is gonna land! Ilargira helduko dituk. Tranquilidadeko itxasoan. Mare Tranquilitatis!

Txo

Ene jauna! Begira beza ilargira poetak baino ez direzela joaten, eta joan be, imaginaziñoagaz, eztagoelako hegorik dauen poetarik. Eta nor edo nork ilargia zapaldu dauela badiño, ein beza kontu guzurra dala, intoxikaziñoa, desinformaziñoa eta manipulaziñoa.

Musika entzuten hasten da.

Txo

Erne! Lamian kanta!

Elcano

Lamiek ez dituk existitzen, Txo!

Andereak balada entzuten du.

2 BALADA: "Haika mutil." (Zati labur bat)

Elcano zaruari begira dago kanta osoan zehar. Agian katalejoaz. Txo hari so. Kanta buklatzean.

Txo

Jauna, eman beza testimonia berorrek, niri ez daustie sinistuten. Esan munduari bueltia emon geuntzola.

Elcano

Munduari buelta? Noiz? Nork?

Txo

Jauna! Berorrek eta berorrekin batera ni neu be.

Elcano

Zu?

Txo

Bai, ni, Juan de Zubieta Barakaldokoa! Berorrek estaten badau sinistuko dabe, ebangeliotako egia lez.

Elcano

San Juan, 20, 24: "Eta Tomasek esan zuen: *Haren eskuetan iltzeen seinalea ikusten ez badut, eta nire atzamarra iltze-zuloetan eta nire eskua haren saihets-zuloan sartzen ez badut, ez dut inola ere sinetsiko.* Eta Jesus hurbildu eta esan zion: *Ekarri atzamarra eta aztertu nire eskuak; ekarri eskua eta sartu nire saihets-zuloan.* Eta ez izan *sinesgogor, sinestedun baizik.* Tomasek erantzun zion: *Ene Jauna eta ene Jainkoa!* Jesusek esan zion: *Ikusi nauzulako sinetsi duzu. Zorionekoak ikusi gabe sinesten dutenak."*

Gurutze santuaren eginez.

Txo

In nomine Patris, et Filii, et Spiritus Sancti, Amen! Zorionekuak, bai! Amen. Amen eta toki guzietan.

Elcano

Roger, here mision control.

Anderea

Ok. Here Tranquility.

Elcano

We copy you on the ground.

Mutikoa

Deabruak hartuta dao!

Anderea

Altitude-velocity light. 3 1/2 down, 220 feet, 13 forward ... forward. Coming down nicely. 200 feet, 4 1/2 down.

Mutikoa

Jauna, bidaiarena konta beza, mesedez. Egin beza nigatik. Morroi jaio nintzan, morroi izateko bizi ta hiltzeko jaio nintzan, baie munduak ezagutu dauen bidairik harrigarrienean parte hartu dot. Eta merezi dodan ohorea jaso gure dot. Jauntxo baten bizimodua izan, egunero ogi zurie, zisne errea, faisana, esturioia, datilak jan eta Hypocraseko ardoa edan. Nire izena historia liburuetan agertu, eta estatua bat euki Barakaldoko Plazan, brontzekoa edo harrizkoa, Don Juan de Zubietaren omenez, mudu berri baten

deskubridorea. Patagonia, Mactan,
Basilan, Lapulapu, Malamawi,
Pangasinan...

Elcano berpizten da, izen horiek entzunda.

Elcano

Mactan, Basilan, Lapulapu, Malamawi,
Pangasinan...

Mutikoa

Gogoratzen dauz berorrek? Jainkoari
esker!

Elcano zeruari begira dago.

Elcano

Bai, han zeudek... Hara, Txo, ikusten dek
dizdizka ari den hori? Labuan dek,
Eskorpio konstalazioan. Eta beste hura,
Basilan, Andromedan. Eta Bálabac,
Casiopean. Eta Cipango? Non zegok
Cipango?

Andereak balada bat kantzatzen du.

3. BALADA. "Atzo goizean" (Zati bat)

Elcano izarretara begira dago.

Kanta bukatzean.

Elcano

Ohh!! Han!! Han zeok! Corona Borealis
parean... Jainkoak eternitate osoan
kondena nazan hango izarra Cipango ez
bada. Marco Polok arrazoi zian,
existitzen dek Cipango. (...) Tsssst!!!

Anderea (Off)

Zipangu, chiamato anche Japon, è una
isola in levante, ne l'alto mare. Il
giapponese son bianche, di bella
maniera e belli. Qui si trova oro e
n'anno assai; neuno uomo no vi va,
neuno mercatante non ne leva: però
n'anno cotanto. Lo palagio del signore
è molto grande e coperto d'oro come si
coprono di piombo le chiese. E tutto lo
spazzo de le camere è coperto d'oro
spesso ben due dita e tutte le fineste
e mura e ogne altra cosa: no si
potrebbe dire la sua valuta. Egli àno
perle assai e son rosse e tonde e
grosse e più care che le bianche.

Ancora v'ài molte pietre preziose che
no si potrebbe contare la ricchezza di
questa isola.

Elcano

Entzun dek, txo? Lo palagio e molto
grande e coperto d'oro. Egli anno perle
e molte pietre preziose... (Zeruko
izarrei begira) Egia dek, Txo,
harribitxien dirdira ikusten diat.
Ederrak dituk, eta eskura zeudek,
Lagunduidak, Txo, ez geratu hor...

Txo izutu xamar.

Txo

Micer Juan, egin beza kontu ez direla
harribitxiak, ez bada zeruko izarrak,
eta Pazifikokan ari garela nabigatzen,
eta ez espazio infinituan. Eta alferrik
dabilela zerua eskuaz heldu guran, ez
dagoelako bertora iristeko eskilararik,
eta soberbiako pekatu larria dala
zerura iritsi gura hori, begira beza
zer gertau jaken Babelen zerurainoko
dorrea eraiki gura ebien idolatra
hoiei! Eta gogora beza Marco Poloren
istorio horiek guzurra dirala, Cipango
edo Japon izeneko irlarik eztagoela,
hori intoxikaziñoa, manipulaziñoa eta
desinformaziñoa dala. Jauna... Jauna??

Elcanok ez dio kasurik egiten. Zerura begira dago, burua
galdurik.

Txo

Ene jainko maitia, galdurik gaoz! Gure
kapitainak burua galdu dau! Bera pilotu
dala, eztogu aurkituko etxerako bidea.
Akabo nire faisanak eta Hypocraseko
ardauak! Akabo brontzezko edo harrizko
estatua! Akabo neure ama barrero be
ikustia.

Anderea kantatzen hasten da. Balada bat. (Balada nolakoa
den, bere ama edo bere maitea gogoratuko du Txok)

Txo

Ama! Ama, zeu zara!

Andereak kantatzen du.

4. BALADA "Isabelatxu" (Zati bat)

Txo

Egon, ama, zuregana noa, ez joan...

Kantan zehar, Txo negarrez dago, ama ikusi guran. Kantaren bukaeran berba egiten dio, arropak kentzen hasten den bitartean.

Txo

Egon, ama, zuregana noia... Zuregana...

Musika bukatzen denan, Txo liluramendutik irteten da.

Txo

Ai ama! Itxasora botazeko zorian egon naz, Ulises handia lez! Bera mastara lotu ei zan lamian liluran ez jausteko! Egia zan beraz, ez zan intoxikaziñoa ezta manipulaziñoa be. Nola bereiztu egia eta guzurra? Akaso zorutzen hasia nao, edo alimentaziño falta izango da, baie neu be pentsatzen hasita nao munduaren buelta hura, ametsa izan zala. Egia bakarrean sinisten dut une honetan:

Elcano solapetatik heltzen du, erreakzio baten bila.

Txo

Ozeanoan galdurik gagozala, Jauna, eta itxasoak irentsiko gaituela, Jainkoa ez bada gugaz urrikaltzen!!!

Elcanoren erreakzioagatik ematen du entzun eta ulertu duela Txoren esana. Jarrera aldatzen du erabat.

Elcano

Ez diat Jainkoaren barkamenik jasoko... Ez... Ez diat... Ez diat merezi. Odolez dizkiat nire eskuak zikundurik. Mediterraneoko urak gorritz dituk, esku hauexekin hildako etsaien odolaz.

Txo

Mediterraneoa?? Pazifikokoan gaoz...

Elcano

(Moztuz) Hire adina izango nitek, moruen kontra borrokatzera joan nintzanian, Enperadorearen izenean, Jainkoaren benedikazioarekin.

Anderea balada bat kantatzen hasten da, gerraren harira. Bereterretxeren kantoria edo.

5. BALADA. "Bereterretxeren kantoria"

Txo

Lamia! Ez, ez dot entzungo!

Txok belarriak ixten ditu.

Pixkanaka, Anderearen kanta, Apocalypse Now-eko Walkirien Kabalgatarekin nahasten da, bonben zaratekin batera. Inglesezko berbak entzuten dira, Vietnameko gerrako marineena. Horiekin nahasturik...

Anderea

"¡Por Santiago y Giménez de Cisneros!"
(...) "¡Santiago y cierra, España!" (...)
"Aur, aur, Desperta, ferro" (...) "Dios con nosotros!"

Elcano (cont.)

(Ikusleei) Mediterraneoko flota hartako kapitaniaren artean ez zen euskaldunik falta: Portuondo, Leizaola, Arteche, Arriola, Landa... Ni artean marinela baino ez nintzen. Oraneko sakeoan 50.000 dukat banatu genituen. Eta emakumeak bortzatzeko eskubidea irabazi. Cisneros Cardenalak esana: "En la guerra no hay pecado." Oran eta gero, Burgia etorriko zuan, gero Tripoli, gero Gjerba...

Gerra zaratak berriro.

Elcano (cont.)

(Ikusleei) Negozio ona zen moroak hiltzia, ta bankuek kreditua eman ziaten neure barkua erosteko, 200 tonako nao bat. Enperadoreak ehun tonako 110 madaveri ordaintzen zituen hilero. Laister amortizatuko nuen gastua. Ta aberastu ere... Baina gerra hura galdu genuen, ta Enperadoriak ez zuen ezer ordaindu. Zorra kitatzeko, ontzia saldu nion Saboyako Dukearen armadari, espainiarren etsaiari. Traidore bihurtu nintzan. Horregatik sartu nintzan Magallanesen espedizioan. Espainiatik alde egiteko. Justiziari izkin egiteko... Eta aberats bueltatzeko.

Txo

(Ikusleei) Neu be sartu nintzan, asmo berdina gaz. Diferentzia bategaz: bera ontziko maestria zan, hilean 3.000 madaveri. Kontramaestriak 2.000 irabazten ebazan; arotzak, kalafate, tonelero eta lonbarderok 1800;

Marinelek 1200; grumeteek 800. Ni pajea nintzan, txo, azkena zerrendan. 500 madaveri. Gizon batek legorrean irabazten ebana baino askoz gehiago, halan da guzti be. Bizitza arriskuan jartzearen truke, jakina. Hamabi urte nebazan artean. Lan asko egin behar neban: inportantiena, areazko erlojuari buelta ematia ordu erdiro, eta segidan kanpaia jo, ontziko guztiek ordua jakiteko; gero ontzigaina garbitu, janaria banandu, kantau eta errezatu, gure gurputz eta arimaren salbaziorako: Aita gurea, zeruetan zagozana. Santifikadu dila zure izena...

Elcanok jarraitzen du errezua, baina Txok arin eta azal esan badu ere, Elcanok egundoko kontrikzioa erakusten du. Bere bekatuen barkamena erregutuz bezela.

Elcano

Betor gugana zure erreñua. Kumpli biddi zure borondatea, nolán zeruan alan lurrean. Egunean eguneango gure ogia eiguzu egun. Parkatu eiguzu gure becatuak... gure becatuak... gure becatuak...

Berriro bonbardaketak eta gerra ohiuak entzuten dira. Elcanok haren gainean ohiukatzen du.

Elcano (Cont.)

Baina... Zergatik parkatzeko eskatu?? Zure esana bete dut!!! Gizonik hil badut, zure izenean hil dut! Emakumerik bortxatu badut, zure izenean! Umeen odola isuriarazi badut, zure izenean!!! Zergatik kartzigatzen nazu orain??

Txo

Micer Juan Sebastian, kondenzio betikoa gua dau berorrek, Jaungoikoari ohiu eginda? (Jaungoikori) Ene Jaungoikoa, ez haintzat hartu Micer Juanen berbie. Sukar amtetsak direz!!! Barkaiguzu eta ez eiguzu itzi tentazionean iaustiten. Guardadu ta libradu gagizu gaiz gustietatik, amen.

Ingurura begiratu eta ezer txarrik gertatu ez dela ikusita.

Txo (Cont.)

Ez da zerua urratu! Tximista batek ez dau ontzia bitan erdibitu! Gora beti Jaungoiko miserikordiaz beterikoa! (Elcanori) Eta berori, ez beza arren,

jaungoikoaren pazientzia barrero
tentau! Eta hasi bedi bidaia kontatzen!

Elcano

Kontatzen? Bat. Jainko bat zeruan. Bi.
Bi liburu santu haren hitzekin. Hiru.
Hiru pertsona desberdin jainko
bakarrerako. Lau. Lau ebangelista.
Bost. Bost ontzi. Bost ontzi jainkoaren
borondatea bete eta mundua gure botaren
azpian zapaltzeko. Bost ontzi,
Sevillako portuan... Zeren zain? Noren
esperoan? Zertarako?

Anderea

Moluketara joateko. Espezien bila.

Elcano

Bai... Moluketara, Portugesek
konkistaturiko lurraldeak ikutu gabe.
Ekialdetik joan beharrean,
mendebaldetik.

Arrainontzia hartu, barruko ura bota eta kirstalezko esfera
erakusten du. Orain badirudi ernatuta dagoela, kemenez.

Elcano

Odisea eta Iliadako marinelek bazekiten
lurra borobila zela, barkuak zerumugan
desagertzen zirelako. Baina jendeak
sinistu ez. Egiptoarrak Afrikako
hegoalderaino bidaiatu eta han eguzkia
Ifarretik agertzen zela esan zuten, eta
herriak sinistu ez. Julio Cesarren
astronomoek bazekiten udako solstizioan
Erroman eguzkia bertikalean zegoelarik,
Alejandrian itzala ematen zuela, eta
sinistu ez. Cristobal Colonek eztabaida
itxi nahi zuen betirako. Eta Indiako
lurretara mendebaldetik joango zen,
lurraren borobiltasuna betirako
frogatuz. Baina oztopo bat aurkitu zuen
bidean: Amerika. Ezusteko bat.
Magallanesek oztopo hura gainditzeko
gai zela aldarrikatu zuen. Mundua
borobila delako. Eta Espainia, mundu
horren jabe izango delako, gurutzez eta
ezpataz, ezpataz eta gurutzez. Eskuak
odolez zikinduz. Euskaldunok ere,
eskuak odolez. Sevillatik atera ziren
bost ontzietatik hiru, gure oletan
eginikoak ziren. Nao Victoria,
Ondarrukoa, Domingo de Apayua
armadoreari erosia; Nao San Antonio,
Erandioko Diego de Arsuari; Nao

Trinidad, Lekeitioko Nikolas de Artietari erosia. Nikolas de Artieta, Enperadorearen itxas armadaren antolatzailea. Berak aukeratu zituan ontziak, berak armak erosi, janari eta tresneria... Ontzi hau ere, Nao Victoria Berria, bigarren espediziñoko nao kapitaina, Nikolas de Artietak lortua, Bermeon eginikoa. Gure kostaldeko herriak Inperioa eraikitzen, gure oletan eginiko ontziekin, gurutzez, ezpataz, odolez. Gure herri txikia munduko zilborra, teknika aurreratuenaren jabia.

Anderea

Three dimentions metal printing; artificial embryos; materials' quantum leap; genetic industry...

Txo

Ontziak egiteko zientzia ezta hain konplexua. Nik, eskolagabea izanda be, baakit eiten. Ontziaren plantillea eiten da aurrena, zaitak marketan eta ebakitzen direz. Hauekaz armasoi osatuko da. Gero sastraz estali. Gero ligasoiak. Gero gilea. Gilarekin kontaktuan dagoan gunea, baringie sendotu bihar da, genolarekin. Bitartean eiten da korosta-brankie eta popieko korosta, euren errebatokaz. Gero gillola jarri, eskarpiak. Gero, asuletu, errepujea egin...

Txok ezpainak mugitzen jarraitzen du, hitz egiten ari dela irudikatzen, baina entzun, offekoa entzuten dugu.

Musikaren laguntzaz, agian.

Anderea²

...atekabilla, breie, adabegi, errifadura, sestra, zapata, gilaordea, eskarpe, plomada, txarrantxa, three-axis stabilization, telecommunication spectrometer, korastape, zubibranka, agiñe, popaburu, kabila, tarja, solar sensors, eskuaira, baranga, untzea, eskora, bagara, kontragilie, bustena, sintola, kontrakaela, amula, txatela, radiation belt, radioisotope

² Parrafo hau buruz ikastea benetan zaila da. Onargarria dela uste dut hau (eta besteren bat, Don Carlosen Gutuna, esatebaterako) irakurria izatea.

thermoelectric generator, miru-buztana, kuberta, ganbila, trankanilla, kalafatie, atekabillak, kontrafraka, refraction, lunar module, grravity assist trajectory, high-energy particle detector, gamma rays, catalytic decomposition engine, combustion chamber, control rocket, accelerometer, aerobraking, altimeter, angle of attack.

Txo denbora guzti honetan hitz egiteko imintzioak egin ditu. Orain berriro bere abotsa berreskuratzen dugu.

Txo

...eta bukatzeko, junturak kalafatieten direz estopie eta galipotaz, eskoploagaz. Eta listo. Bidaia eiteko prest. Da olan egin genduk guk. 1519ko Irailak 20ean San Lucar de Barramedatik irten ginen. Mundu guziko gizonak egozan: andaluzak, extremeñoak, castellanoak, galegoak, belgak, alemaniarak, portugesak... Eta euskaldun asko, bai, bilbokoak, bermiotarrak, lekeitiarrak, baita gipuzkoako eta nafarroakoak. Babelgo dorre hartan hiru hizkuntza ziren nagusi: gaztelera, portugesera eta euskera.

Anderea

¡Larga trinquete en nombre de la santísima Trinidad, Padre, Hijo y Espíritu Santo, y un solo Dios verdadero, que sea con nosotros, nos de buen viaje a salvamento y nos vuelva con vida a nuestras casas!

Izad velas em nome da Santíssima Trindade, Pai, Filho e Espírito Santo, e um único Deus verdadeiro esteja conosco, e nos dê uma boa viagem para resgatar e nos traz à vida em nossos lares!

Elcano

Altza trinketea, hirutasun santuaren izenean, aita, semea eta espíritu santua, eta jainko bat eta bakarra, gurekin egon bedi, bidaia ona eman eta etxera onik buelta gaitzala! (...) Bost ontziak lerroan. Ontzien mastak odolez tindatuak zeuden. Belak ere odolez tindaturik, neure eskuz hildako etsaien odolez. Lantzean behin gogoak egan

egiten zidan, hodeietarantz, eta handik irudikatzen nituen bost ontziak lerroan nabigatzen. Zeruaren urdinaren azpian, itxasoaren berdearen gainean, bost ontzi gorri, lerroan antzarrak lez, zaurituriko antzarrak lez, odolez blai, zerua kutiziatzen. Aidean, espazio mugagaberuntz nabigatzen, hilargiaren orbitarantz, zazpi esfera zerutarrak zeharkatuz...

6. BALADA "OI PELLO PELLO" (Zati bat)

Txo

Barka beza jaunak, baina ontzien kolore gorria ez zan inoren odolarena, ez bada almagre deituriko pigmentoarena, ona dalako egur eta ohialeen konserbaziñorako. Eta ez ginan eundo aidetik ibili, ez bada uraren ganean denbora guzian. Eta nik dakidala, ontziko inork ez eban zerura joan gura, ez bada Espezieta Irletara, klabo lurrintsua hartzera, etxera aberats bueltatzeko. Hori bilatzen genuen... Eta zelan ez, erligio katoliko santua mundu osoan zebaltzia, idolatra basati horiek bataiatuz.

Elcano

Eta idolatra basati horiek bataiatzeko tresnak ez ziren falta gutre ontzian: dozena bat ballesta, hamar eskupeta, ezkutu, peto eta korseleteak, artilleroak babesteko, hamabost kanoi, bi bombardak handi, beste hamairu txikiago, falkonete eta kulebrinak, ehundaka bala berunezko, dozenaka polbora upel, ezpatak, haiztoak, haizkorak... Ederki bataiatu genituen indigena basati horiek.

Txo

(Ikusleei) Egia da inoz indarra erabili beharrean egon ginala, baie ez zan hori gure borondatia, eta diplomaziaz akordioak egiterik bazegoan, gure armak ez zireala Santa Barbaratik irteten. Hauxe da egia, eta kontrakoa diñoena, desinformatzen, manipulatzeko, eta intoxikatzen ari da. Eta oin, jauna, jarrai beza kontetan bidaia, eta nola iritsi ginan azkenik...

Elcano

Ez gintuan iritsi inora.

Txo

Jauna, mesedez...

Elcano

Eta uztak bakean, Cipangora iristen ari gaituk eta! Hor zagok, Mare Tranquilitatis horren erdian. Neu izango nauk lehena iristen. Neu lehena.

Baina Elcano izarrei begira jartzen da, joanda.

Txo

Jauna, begira beza itxaso hau eztala "Tranquilidade" deitzen, ez bada "pazifikoa". Eta... Jauna...??

Elcanok ez dio kasurik egiten. Txok, ezkenean, bere faltrikan zeukan gutun bat ateratzen du.

Txo

Irakur beza hau.

Elcano

Zer duk?

Txo

Berorrek Carlos Enperadoreari idatzi eutson gutunaren kopia bat. Berorren idazkariak kopiau eban, eta oin nirea da. (Gutuna defendituz) Irakur beza, arren, eta gero emon bueltan. Inoiz ogi zurie, zisne errea, faisana, esturioia, datilak jan eta Hypocraseko ardoa edaten badot, gutun honegatik izango da, ez berorreatatik.

Elcanok gutuna hartzen du, kuriositatez. Eta irakurtzen du.

Elcano³

Muy alta e ilustrísima Majestad.

Sabr  tu alta Majestad c mo hemos llegado diez y ocho hombres sanos y salvos, con una de las cinco naves que tu alteza envi  a descubrir las especias con el capit n Fernando de Magallanes, que descanse en la gloria, y porque tu alteza tenga noticia de las principales cosas que hemos encontrado, con brevedad escribo  sta y digo:

³ Gutun hau paperetik irakurriko du aktoreak, buruz ikasi beharrik gabe.

Primeramente, llegamos a los 54 grados al sur de la línea equinoccial, donde hallamos un estrecho que pasaba por la tierra firme de tu alteza al mar de la India, el cual estrecho es de cien leguas, por el cual desembocamos

Txo

Amerikako kostaldea amaitezina zan, tropikoaren berotik hegoaldeko izotzetaraino. Kostaldeari pega einda nabigatu gendun, beste itxasora pasatzeko zeharbiden bila. Itxasadar guzietan sartzen ginan, eta bertoko ura dastau. Gatzik gabia bazan, ibaia zan seinale, eta ez itxasoko pasabidia. Urte oso bat horrela. Insurrekziñoak egon zirean, motinak... Baie aurrera egin genduen, gero eta etsiago, gero eta hotz da goseago. Lantzean behin hango biztanleak ikusten genduzan, kostaldean. Giganteak direz patagonak. Beldurgarriak. Urtebeteren bueltan, itxasoko sarrera handi bat ikusi genduan, lur mutur baten ostean, Hamaika Mila Birginetako lut muturra. Sartu ginan. Zeharbide estua zan. Izoztua. Mendi muinoetan, patagonek eginiko suteak ikusten zirian, eta horregatik, Suaren Lurraldean izendatu genduan bazter zakar hura. Hiru hilabete eman genduan irlen labirintu hartan bidea topetan, aurrera ta atzera. Azkenian, itxaso berria ikusi genduan, handia, eta bare barea une hartan. Pazifikoa deitu geuntzon.

Elcano

En tiempo de tres meses y 20 días, con viento próspero no encontramos tierra alguna, sino sólo dos islas deshabitadas y pequeñas, y después llegamos a un archipiélago de muchas islas muy rico en oro. Faltónos por su muerte el dicho capitán Fernando de Magallanes, con muchos otros, y por no poder navegar por la falta de gente, habiendo quedado muy pocos, deshicimos una de las naves, y con las dos restantes navegamos de isla en isla, llegando con la ayuda de Dios a las islas de Maluco, y esto fue después de la muerte de Fernando de Magallanes en ocho meses.

Txo

Jaungoikoak bere ondoan eukiko dau Don Fernando, gurutze santua ta gure erligio bakar eta berdaderua zabaltzeagatik aurkitu ebalako heriotza, indigena basati eta idolatra batzuen eskutik.

Elcano

Allí cargamos las dos naves de clavo. Sabrá tu alta majestad cómo navegando hacia las dichas islas de Maluco, descubrimos el alcanfor, canela y perlas. Deseando partir de las dichas islas de Maluco para volver a España, se descubrió una grandísima vía de agua en una de las dos naves, de tal modo que no se podía remediar sin descargarla. Y como se pasaba la época en que las naves navegan para Java y Malaca, resolvimos o morir o con toda honra servir a tu alta majestad para hacerle sabedor del dicho descubrimiento y partir con una sola nave, estando en tal estado, por causa de la broma, que sólo Dios lo sabe.

Txo

Bromarekin broma gutxi! Uretan dagoan egurari pegatzen diren lapazorriak direz. Egurra jaten dabe, bigundu, desegin. Konturatu orduko, ontzikroskoa zulatu ta ondora doia ontzia, eta barruak doiazan kristauak be.

Elcano

En cuyo camino descubrimos muchas islas riquísimas, entre las cuales descubrimos a Bandam, donde se dan el gengibre y la nuez moscada, y Java, donde se cría la pimienta, y Timor, donde crece el sándalo, y en todas las sobredichas islas hay infinito gengibre. La muestra de todas estas producciones, recogidas en las mismas islas en que se dan, traigo para mostrarlas a tu majestad; y también la paz y amistad de todos los reyes y señores de las dichas islas, firmadas por sus propias manos, pues desean servirle y obedecerle como a su rey y señor natural.

Txo

Maluko-ko irlen artean badao bat, Tidore izenekoa. Eta hango printzeak,

euskeraz ikasi eban. Portugaleko dokumentu batean halan esaten dau.

Anderea

"E porque o príncipe da cellea ilha podem falar português, castillan e também Biscahino."

Elcano

Todas estas islas están en el límite de la demarcación y conquista, como por nuestra carta y punto se dará relación cierta a tu alta y potente majestad. Habiendo partido de la última de aquellas islas, sin comer más que arroz en cinco meses, y bebiendo sólo agua, no tocamos en tierra alguna, por temor al Rey de Portugal, que tiene ordenado en todos sus dominios tomar esta armada, a fin de que tu majestad no tenga noticia de ella, y así, se nos murieron de hambre veinte y dos hombres.

Txo

A ze gosia! Sevillatik atera ginen bodega ondo beterik. 500 upel bizkotxo; 300 upel ardo; 30 upel olio; lau tona arrain eta beste hainbeste urdaia; bai eta babak eta garbantzuak ere; kipulak eta berakatzak. Bodega hura beterik ikusi nebanean, bidaia amaibako banketea izango zala pentsatu neban, inozoa nik! Ez nekian... inork ez zekian ixaso barri hura, Balboa edo Pazifikoa, zerua bezin zabala zanik. Konturatu orduko, ahora zer eramán barik geratu ginan.

Elcano

Por la falta de vituallas, arribamos a la isla de Cabo Verde, donde el Gobernador de ella me apresó el batel con trece hombres, y quería llevarme junto con todos mis hombres en una nave que volvía de Calicut a Portugal cargada de especiería, diciendo que sólo el Rey de Portugal podía descubrir la Especiería; y a ese intento armó cuatro naves para apresarme. Pero resolvimos, de común acuerdo, morir antes que caer en manos de los portugueses, y así, con grandísimo trabajo de la bomba, que de día y de noche no hacíamos otra cosa que echar

fuera el agua, estando tan extenuados como hombre alguno lo ha estado, con la ayuda de Dios y de Nuestra Señora, después de pasados tres años, hemos arribado. Por tanto, suplico a vuestra alta Majestad que provea con el Rey de Portugal la libertad de aquellos trece hombres, que tanto tiempo le han servido. Más sabrá tu alta majestad que aquello que más debemos estimar y tener en cuenta es que hemos descubierto y dado la vuelta a toda la redondez del mundo, yendo por el occidente y regresando por el oriente. Suplico a V. M., por los muchos trabajos, sudores, hambre y sed, frío y calor que esta gente ha padecido en servicio tuyo les haga merced de 150 quintales y de la cuarta y veintena de lo que consigo traen. Y con esto ceso, besando los pies y manos de tu alta Majestad. Escrita a bordo de la nave Victoria, en Sanlúcar, a seis días de septiembre de 1522.

El capitán Juan Sebastián del Cano.

Txok eskutitza eskutik kendu Elcanori eta berriro gordetzen du.

Txo

Lau berbatan kontau zuan berorrek bidaia. Getariko semea, "corto en palabras mas en obras largo". Ohore handia izan da beroren serbitzura egotia. Agur eta ohore, berori, jau... (...) Jauna???

Elcanok ez dio arretarik jarri. Itxasoari begira dago.

Elcano

Maris tranquillitis! Tranquilidade itxasoan gaudek, Txo!

Txo

(Ikusleei) Tristia da gure herriak emon dauen gizonik handiena hola ikustia. Dana dala, entzun dozue: 1522ko Irailak 6an, munduari buelta osoa emanda gero, mendebaldetik ekialderantz, Nao Victoria San Lucar de Barramedara iritsi zan, hamazortzi kristauekaz. Hamazortzi marinel, hamazortzi itzal zurbil, azal eta hezur. Eta haien artean lau euskaldun, Juan Sebastián de Elcano, Getarikua, kapitaina; Juan de

Acurio, Bertmiotarra, pilotua; Juan de Arratia Bilbokoa, grumetea, eta ni Juan de Zubieta, Barakaldokoa, Pajea. Ontzitik atara eta prozesiñuan joan ginan Santa Maria de la Victoria eleizara, Jaungoikoari eskerrak emoteko.

7. BALADA: "LELOTXO MONTAÑAKO" (Zati bat)

Txo

Handik gutxira Enperadore Carlos Iak Micer Elcanoren gutunari respondidu eutzon.

Anderea

"Capitan Juan Sebastian del Cano: vi vuestra letra que me escribistes de Sanlúcar... He holgado mucho por vos haber traído nuestro Señor en salvamento, y le doy por ello infinitas gracias; y porque yo me quiero informar de vos muy particularmente del viaje que habeis hecho y de lo en él ha sucedido, vos mando que luego que esta veais, os partais y vengais donde yo estuviere..."

Txo

Eta berori erregearengana joan zan. Erregek eskudoa oparitu, eskudoan lur planeta egoan, inskripziño bategaz, istoriak betirako gordeko duena. Gogoan du berorrek?

Elcano

Bai.

Anderea

"That's one small step for man, one giant leap for mankind."

Txo

"Primus circumcidiste me". Zuk emon eustazun lehenengo bueltia.

Elcano

Hori gezurra dek.

Txo

Baina Jauna...

Elcano

Gogoan dek Enrique de Malaca? Magallanesen esklabua. Filipinetan

harrapatu eta berarekin ekarri zuan handik, Espainiara. Bidaian parte hartu zuan, Magallanesen serbitzura. Hau hil eta gero, Filipinetara iritsi eta Enrique bere etxean geratu zuan. Ulertzen dek? Txo, ulertzen dek? Enrique de Malaca Filipinetatik irten zuan, eta Filipinetara itzuli, mendabaldetik ekialderako bidaian. Ez ninduan ni lehena izan, ezta hi ere, Juan de Zubieta. Bera izan zuan lehena, Enrique de Malaca, Filipinetako esklabu bat.

Txo

Ene jainoa! Agur eguneroko ogi zurie, egur zisne errea, faisana, esturioia eta datilak, agur Hypocraseko ardoa!

Elcano geroz eta abailduago, gaixoago.

Elcano

Agur eta ohore Enrique de Malacari. Bakoitzari beria. Ni beste balentriagatik gogoratuko naitek. Cipango izeneko planeta hartaraino nabigatzen lehena izateagatik. Haren orbitara hurbiltzen ari gaituk. Lehorreratzeko gertu egon behar dugu.

Anderea

Lights on ... Down 2 1/2. Forward. Forward. Good. 40 feet, down 2 1/2. Kicking up some dust. 30 feet, 2 1/2 down.

Elcano

Banoa!

Elcano zerura begira jarri, baina indarge, lurrera jausteko zorian da. Txok eusten dio.

Txo

(Ikkusleei) Negarguria emoten dausta holan ikustia, bera izan da niretzat sekula ezautu ez neban aita.

Elcano gero eta makalago.

Txo

Berak gidatu eban Moluketatik Sevillara ontzi zahar ondatu bat, tripulaziño nekatu eta gaixo batekin, bidaia osoan lurrik ikutu ezinik, portugesen eskuetan erortzeko

beldurrez. Ez dago munduan hori lortuko eban kapitainik. Getariko, Inperioko, Munduko, Galaxia osoko nabigatzailerik onena, zientzia gizona, astronomo eta kartografoa.

Anderea

Faint shadow. 4 forward. 4 forward. Drifting to the right a little. Okay. Down a half.

Elcano

Here mission control. 30 seconds of fuel remaining.

Musika entzuten hasten da.

Txo

Jauna, begira beza ez gaudela Mare Tranquilitatis hartan, ez bada Pazifikoaren erdian, eta ezin dauela inora joan, gaixorik dao ta...

Elcano

Hiltzen ari nauk, bazakiat, Txo. Horregatik, ez zagok denbora galtzerik. Ezagutzen duk marinelen legea, bai? Zer egin behar dek nirekin?

Txo

Baina jauna...

Elcano

Zer egin behar dek?

Txo

Itxasora bota, jauna. Baie oraindik ez dago hilda berori!

Elcano

Garai txarrak dituk heriotza eta bizitzaren artean bereizteko. (...) Tssst!!!

Entzuten geratzen da.

Anderea

Altitude-velocity light. 3 1/2 down, 220 feet, 13 forward ... forward. Coming down nicely. 200 feet, 4 1/2 down

Elcano

Abiatzeko ordua. Cipango zai daukat. Txo, ireki ezak eskotilla, kanpora noa...

Txo

Baina jauna...

Elcano

Etxera bueltatzian, joan hadi Getariko
neure etxera, galde ezak Katalinagatik.
Neure ama. Esan mirestu dudala,
errespetatu dudala eta maite izan
dudala. Esan... Tssst!

Anderea

Five percent. Okay. 75 feet. There's
looking good. Down a half, 6 forward.

Elcanok arrainontzia buruan ipintzen du. Astronautaren
irudia dakar gogora.

Elcano

Ok. Near by Tranquility. The Eagle's
gonna land. I'm gonna get out...

Txo

Jauna!

Elcano

Orain espazioan nabigatzera noak,
eternidade osoan, ingrabitatean.

Elcano abian da.

Musika hasten da.

Txo

Jauna, itxoin beza berori! Neu be zugaz
noia. Lamia ikusi gura dot. Horren
musika ederra egiten dauen emakumiagaz
egon gura dot! Entzuna dot nik, eta
sinistuten dot, lamien ondora joaten
dana, egunero ogi zurie jaten dauela,
eta zisne errea, eta faisana, eta
esturioia, eta datilak... Egunero edaten
dauela Hypocraseko ardoa.

8. eta azken BALADA: "ESKRIBAUAREN ALABA" (Osorik)

Elcano eta Txo eskenatik desagertzen dira.

Anderea

Juan Sebastian Elcano 1526eko abuztuak
4ean hil zen, eskorbutoagatik ala
intoxicazio bategatik. Bere gorpua
ozeanora bota zuten, itxasoko legeak
agindu bezela. Juan de Zubietaren
berririk ez da inon ageri.

Munduari buelta emateko bigarren
espedizio hura zoritxarrekoa izan zen.
A Coruñatik irten ziren zazpi
ontzietatik bakar bat iritsi zen
Moluketara. Hogeitairu marinel bueltatu
ziren etxera bizirik, hamaika urte
geroago.